



Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkarte



Hemen zaude: Hasiera » Ekonomia » **Usurbilekin elkarlana sustatzeko asmoa adierazi du Astigarragak, txotx irekiera ekitaldian**

Usurbilekin elkarlana sustatzeko asmoa adierazi du Astigarragak, txotx irekiera ekitaldian

noaia 2015-01-14 Ekonomia, Jendartea, Kultura

“Txoooootx!”, datozen hilabeteotan sarritan entzungo dugun hitza. Abian da ofizialki, 2015eko sagardo denboraldia, eguerdian Astigarragan ospatu den irekiera ekitaldiarekin. Hitzorduan aditzera eman dutenez, 2014ko uztak 10 milioi litro sagardoko ekoizpena utzi digu. lazkoaren antzeko kopurua. Baina sagar barietateen araberako uzta irregularra. “Eskualdeen artean ekoizpena oso desberdina izan da eta baita sagastian bertan ere, askotan frutarik gabeko barietateak ikusi baitira, eta ondoan, adar asko haustea ondorioztatu duten sagar ugariko barietateak. Egoera hau Gipuzkoa osoan eman da antzeko moduan”, Astigarragatik berri eman dutenez.

Sagardo usaingarria, hori-berdexka kolorekoa, txinparta bikainekoa, sagardo orekatua, oso edan erraza eta arina dastatuko omen dugu denboraldi berri honetan. “Uda fresko eta hezeak sagarraren azukreen kontzentrazio egokia ahalbidetu du, zuku arinak eta freskagarriak lortuz”, txotx irekiera ekitaldian berri eman dutenez.

Elkarlana, “produktu turistiko erakargarriagoa eskaintzeko”

Sagardo denboraldi berriko nondik norakoak aurkeztu dituzte eguerdian, Astigarragako kultur etxean. Besteak beste, Usurbili loturiko aipamenik ere egin da. Andoni Gartzia udalerriko alkateak, Astigarragan sagardoaren inguruan bultzatzen duten elkarlana, herritik kanpo zabaltzeko nahia adierazi du. Hernani eta Usurbilgo herriekin elkarlana sustatzearen aldeko apustua egin nahi du. “Uste dugu garaia dela inguruko herrietan elkarlanean hasteko. Aurten, bai Hernani eta Usurbilekin nahi dugu harreman bat, elkarlan bat egin. Herriok dugun aberastasuna partekatu, produktu turistiko erakargarriago bat eta hobeago bat eskaintzeko etorriko diren bisitari guztiei”, Gartziazen esanetan. Bere adierazpenak, albiste honi atxikitako bideoan dituzue.

idatzi bilaketa irizpidea

bilatu

Eguraldia Usurbilen

Asteartea



22° 15°



16 km/h

Agenda

EKA 8 az.	18:00 Fruitu baratza baten landaketa
EKA 9 og.	17:30 Tximeleta taldearen ikuskizuna
EKA 10 ol.	17:00 Alebinen futbol taldea osatzeko ...
EKA 11 lr.	11:00 Ziortzaren kanpaldirako guraso b... 20:00 The Hastelen's taldekoen kontzertua
EKA 12 ig.	egun osoa Lizarrusti-Larraitz mendi irteera 11:00 Tipi-Tapa
EKA 13 al.	18:30 Zumartekoaren ikasturte amaierako ...
EKA 14 ar.	18:00 Zumartekoaren ikasturte amaierako ...



Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Iruzkinak itxita daude.

« Aurrekoa

Hurrengo »

EKA

15
az.

18:30 Zumartekoen ikasturte amaierako ...

Egutegia ikusi →

Komunitatea

Juanjo Lertxundi 2016-05-29

Erabaki nuen eta ikasi nuen

Eta horrela, asko itxaron ondoren, beste edozein egun baten gisako egun batean



Juanjo Lertxundi 2016-05-20

Hasiberriaren adimena

Ezagutzen dudun gizaki oro nolabait ere ni baino gehiago da. Zentzu horretan,



Juanjo Lertxundi 2016-05-06

Ezkila joka dabil

Bizi oraina, duzun momentu bakarra baita. Zure arretra hemen eta orain dagoen honetan



Juanjo Lertxundi 2016-04-29

ADOREA

Zure denbora mugatua da, beraz ez alferrik galtzera utzi beste pertsona baten bizitza



Sutegi Udal Liburutegia 2016-04-28

V GAZTELERAZKO LITERATURA-TOPAKETA, NADA LIBURUAZ

Ekainaren 1ean (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-04-25

Ametz handiak egin, txikitik hasi, eta ekin berehala!

Ametz handiak egin, txikitik hasi, eta ekin



Juanjo Lertxundi 2016-04-20

Non zaude orain?

Meditatzerakoan ez gara gizartetik aldentzen, ez dugu jendartetik ihes egiten; aitzitik,



Juanjo Lertxundi 2016-04-06

LONGANIMIDAD

Ezagutzen al duzu Longanimidad kontzeptuaren esanahia? Hitz ezezaguna da



Juanjo Lertxundi 2016-03-29

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean, azkar bukatu nahian pikutara botatzen du.

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean,



Juanjo Lertxundi 2016-03-23

Erronka ez datza denbora administratzean, gu geu administratzean baizik.

Erronka ez datza denbora administratzean,



IKUSIENAK

BERRIENAK

IRUZKINAK

ARTXIBOA



Gertu Usurbil, txartel berria eskuragarri
Hainbat udal zerbitzuetarako



Maiatzean Usurbila datorren
"Sagardo ibaiak, bizitza iturri"
erakusketa inauguratu dute



Manifestazioa eta asanblada deitu
ditu Gipuzkoa Zutik-ek, poliziak
kanpaldi gunea hustu ostean




Botatzaile onena, Olatz Arregi
Sagargo Eguna 2016ko botatzaile
lehiaketan, Olatz Arregiren




Sagardo Eguneko agenda
Igande eguerdian lehertuko da
sagardo festa. Baina aurretik, eta

Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak



Azken argazkiak



Albiste nabarmenduak



[Bideoa] Jendetza batu da #m29 giza-
katean
Erraustegiaren aurka eta osasunaren
aldea jendetza batu da gaur



"Bazkideak dira NOAUA!ko zutarrak"
NOAUA! Kultur Elkarreak 20 urte bete
ditu aurten. Sagardo Egunaren



Botatzaile onena, Olatz Arregi
Sagargo Eguna 2016ko botatzaile
lehiaketan, Olatz Arregiren



Sagardo Eguneko agenda
Igande eguerdian lehertuko da
sagardo festa. Baina aurretik, eta

Webmapa

- > Agenda
- > Aldizkaria
- > Argazkitegia
- > Komunitatea
- > Merkatu txikia
- > Noaua TB
- > Noaua!
- > Zorion agurrak
- > Zerbitzuak

Artxiboa


Artxiboa



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf. 943 360 321 erredakzioa@noaua.eus
© 2016 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



Cookie-ak erabiltzen ditugu nabigazio esperientzia hobetzeko eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, ulertuko dugu horien erabilera onartzen duzula.

Ados